

2007ko hirugarren hiruhilekoan aurreko urteko aldi berean baino ezkontza gutxiago egin zen

Bizkaian %8,6 gutxitu ziren ezkontzak 2006ko hirugarren hiruhilekoaren aldean; Araban eta Gipuzkoan, aldiz, are gehiago murriztu zen ezkontzen kopurua (%15,5 eta %14,7 hurrenez hurren)

EUSTATen datuen arabera, 2007ko uztailan, abuztuan eta irailean guztira 2.943 ezkontza egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean kopuru hori %11,9 gutxitu zen. Ezkontza horien artean, bestalde, 370 bikote Arabara joan ziren bizitzera, 932 Gipuzkoara eta 1.553 Bizkaira. Euskal Autonomia Erkidegokotik kanpora bizitzera joan zirenak 88 izan ziren.

Iraila izan zen ezkontzeko hilabete gustukoena

Irailean egin ziren ezkontza gehienak (1.285), eta gero uztailan 1.265. Bestalde, aurrekoetan bezala, ezkontza gutxien (393) izan zituen udako hilabetea abuztua izan zen.


Urtean ezkontza kanoniko gehien izan zituen hiruhilekoa izan arren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean ezkontza gutxiago egin izanak ez zuen eraginik izan ezkontza zibilen kopuruan, ia kopuru bera izan baitzuten; baina bai izan zuen eragina ezkontza erlijiosoetan, hauek ia %19 murriztu ziren aldi bi horien artean. Gipuzkoan ezkontza kanonikoak guztien %56,1 izan ziren, Bizkaian %56,2 eta Araban %57,6.

2007ko hirugarren hiruhilekoko 2.943 ezkontzen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar ziren 2.858 gizon eta 2.908 emakume ezkondu ziren. 2.680 senar (%93,8) lehenengo aldiz ezkondu ziren eta, bestalde, 12 gizonetzko alargun eta 166 gizonetzko dibortziatu berriz ezkondu ziren. Emakumeen lehenengo ezkontzen ehunekoa gizonenaren antzekoa izan zen: aldi horretan 2.707 emakume ezkongabe (%93,1), 11 alargun eta 190 dibortziatu ezkondu ziren.

Ezkontzak ezkontideen adinaren arabera banatuz gero, emazteen %55ak 30 urtetik gora zituen eta adin-tarte horretako gizonen kopurua %73,1ekoa izan zen.

	2007ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2007ko 2. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2006ko 3. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	2.943	100,0	2.856	100,0	3.342	100,0
Kanonikoak	1.670	56,7	1.468	51,4	2.054	61,5
Zibilak	1.273	43,3	1.388	48,6	1.288	38,5
SENARGAI AK	2.858	100,0	2.775	100,0	3.247	100,0
Ezkongabeak	2.680	93,8	2.567	92,5	3.050	93,9
Alargunak	12	0,4	18	0,6	10	0,3
Dibortziatuak	166	5,8	190	6,8	187	5,8
EMAZTEGAI AK	2.908	100,0	2.814	100,0	3.303	100,0
Ezkongabeak	2.707	93,1	2.600	92,4	3.096	93,7
Alargunak	11	0,4	8	0,3	13	0,4
Dibortziatuak	190	6,5	206	7,3	194	5,9

1. grafikoa: Ezkontzen hilez hileko mugimendua



Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. el.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es